REFORMA DE LA NEGOCIACIÓN COLECTIVA

ELA EUSKAL SINDIKATUA

# Organízate en ELA y pararemos la reforma

## TEST SOBRE LA REFORMA DE LA NEGOCIACIÓN COLECTIVA

### ¿Estás al tanto de lo que te puede suponer?

**1. ¿Quién está detrás de la reforma de negociación colectiva?**

A. La crisis.

B. La CEOE, CCOO, UGT y el Gobierno Español.

C. El Gobierno Español, que ha ido por libre y ha dictado un decreto.

**2. ¿A quién favorece la reforma?**

A. A las y los trabajadores.

B. A las empresas solamente.

C. A las empresas, CCOO y UGT.

**3. ¿Qué significa centralizar la negociación colectiva?**

A. Que la negociación es de centro-izquierdas.

B. Que la negociación es de centro-derechas.

C. Que la negociación estatal puede decidir qué y dónde se negocia.

**4. ¿Es obligatorio negociar convenios estatales a partir de la reforma?**

A. Sí la ley les obliga.

B. No es obligatorio.

C. Depende del sector.

**5. ¿Qué supone limitar la ultraactividad?**

A. Poner límites temporales a la aplicación de un convenio.

B. Poner límites a las horas extra.

C. Poner límites a la competencia.

**6. ¿Qué es la flexibilidad interna en una empresa?**

A. La distribución irregular de la jornada (bolsas de horas).

B. Medidas para conciliar la vida laboral y familiar.

C.Tener jornada flexible.

**7. ¿Por qué CCOO, UGT y la patronal estatal han iniciado la negociación de los convenios estatales de limpieza y comercio?**

A. Porque la ley les obliga.

B. Unos para monopolizar la negociación y otros para abaratarla.

C. Porque es necesario.

**8. ¿Qué diferencia hay entre los convenios estatales y los convenios de aquí?**

A. No hay diferencias apenas.

B. Los estatales son mejores.

C. Los de aquí son mejores.

**9. ¿Se pueden frenar las consecuencias negativas de la reforma?**

A. Sí, organizándonos y defendiendo los convenios de aquí.

B. No, es legislación obligatoria.

C. No, aunque no es obligatoria en la práctica es imposible.

**LAS RESPUESTAS EN LA SIGUIENTE PÁGINA**

ELA EUSKAL SINDIKATUA

# SOLUCIONARIO DE RESPUESTAS CORRECTAS




**1.- ¿QUIÉN ESTÁ DETRÁS DE LA REFORMA DE NEGOCIACIÓN COLECTIVA?**

**B.** *La CEOE, CCOO, UGT y el Gobierno Español.*

La patronal española, CCOO y UGT estuvieron a 5 minutos del acuerdo. Por lo tanto, los cambios recogidos en el Decreto aprobado por el gobierno español son para ellos: algunos cambios favorecen a los sindicatos estatales y otros a las empresas.

**2.- ¿A QUIÉN FAVORECE LA REFORMA?**

**C.** *A las empresas, CCOO y UGT.*

A las empresas porque se pone límite temporal a la vigencia de los convenios, se da opción a incorporar bolsas de horas y se abre la puerta al arbitraje obligatorio en caso de desacuerdos. A CCOO y UGT porque la reforma da prioridad a los convenios estatales, que son los que ellos controlan, frente a los provinciales, que son los que negocia ELA.

**3.- ¿QUÉ SIGNIFICA CENTRALIZAR LA NEGOCIACIÓN COLECTIVA?**

**C.** *Que la negociación estatal puede decidir qué y dónde se negocia.*

La reforma les da la opción a CCOO, UGT y las patronales estatales de decidir a través de los convenios estatales qué materias van a negociarse exclusivamente en el estado y que otras materias van a dejarnos negociar aquí. Eso supone un ataque brutal al derecho de negociación de quienes trabajamos aquí.

**4.- ¿ES OBLIGATORIO NEGOCIAR CONVENIOS ESTATALES A PARTIR DE LA REFORMA?**

**B.** *NO es obligatorio.*

La reforma solo les da la opción, en ningún caso les obliga a decidir qué se puede negociar en el Estado y qué en las provincias. Sería perfectamente legal seguir como hasta ahora, es decir, es legal negociar convenios de aquí. Eso significa que si han empezado a negociar convenios estatales no es porque les obliguen, sino porque QUIEREN HACERLO.

**5.- ¿QUÉ SUPONE LIMITAR LA ULTRAACTIVIDAD?**

**A.** *Poner límites temporales a la aplicación de un convenio.*

Antes de la reforma, cuando terminaba la vigencia temporal de un convenio, este seguía aplicándose hasta llegar a un nuevo acuerdo. Con la reforma, hay plazos máximos para negociar (8 ó14 meses) y si agotados esos plazos no hay acuerdo, habrá arbitraje obligatorio salvo que aquí consigamos pactar algo distinto.

**6.- ¿QUÉ ES LA FLEXIBILIDAD EN UNA EMPRESA?**

**A.** *La distribución irregular de la jornada (bolsas de horas).*

A partir de la reforma, salvo pacto en contrario, habrá un 5% de jornada irregular. Esto significa que la patronal podrá disponer a su antojo de una bolsa de 86 horas anuales aproximadamente para que las trabajemos cuando mejor le convenga. Desde ELA deberemos pelear para conseguir pactar que no haya jornada irregular.

**7.- ¿POR QUÉ CCOO, UGT Y LA PATRONAL ESTATAL HAN INICIADO LA NEGOCIACIÓN DE LOS CONVENIOS ESTATALES DE LIMPIEZA Y COMERCIO?**

**B.** *Unos para monopolizar la negociación y otros para abaratarla.*

CCOO y UGT, aunque aquí digan que defienden los convenios de aquí, lo cierto es que han empezado a negociar el primer convenio estatal en el sector de la limpieza así como en el comercio. Hasta ahora todos los convenios eran provinciales. ¿Por qué lo hacen? Porque en el Estado controlan ellos y nos quitan a ELA de en medio. ¿Y por qué accede la patronal? Porque los convenios estatales les salen mucho más baratos.

**8.- ¿QUÉ DIFERENCIA HAY ENTRE LOS CONVENIOS ESTATALES Y LOS CONVENIOS DE AQUÍ?**

**C.** *Los de aquí son mejores.*

En el estado se trabajan muchas más horas (entre 50 y 60 horas más al año) y los salarios están muy por debajo (entre 100 a 300 € menos al mes).

**9.- ¿SE PUEDEN FRENAR LAS CONSECUENCIAS NEGATIVAS DE LA REFORMA?**

**A.** *Sí, organizándonos y defendiendo los convenios de aquí.*

Como trabajadores y trabajadoras de aquí lo primero es hacer saber a CCOO y UGT que las decisiones que tomen al amparo de esta reforma no les van a salir gratis. Que negocien en el Estado, va contra nuestros intereses. A partir de ahí, lo importante es organizarnos bien en la empresa y en el sector para poder defender los convenios de aquí y conseguir que sigan siendo los mejores del Estado.

ELA EUSKAL SINDIKATUA

# ELAn antolatuz, erreforma geldiaraziko dugu

## NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ERREFORMARI BURUZKO INKESTA

### Ba al dakizu zer ekar dezakeen zuretzat?

**1. Zer dago negoziazio kolektiboaren erreformaren atzean?**

A. Krisia.

B. CEOE, CCOO, UGT eta Espainiako Gobernua.

C. Espainiako Gobernua, dekretu bat bere kabuz eman du-eta.

**2. Erreformak nori egiten dio mesede?**

A. Langileei.

B. Soilik enpresei.

C. Enpresei, CCOOi eta UGTri.

**3. Zer esan nahi du negoziazio kolektiboa zentralizatzeak?**

A. Negoziazioa zentro-ezkerrekoa dela.

B. Negoziazioa zentro-eskuinekoa dela.

C. Estatu-mailako negoziazioan erabaki daitekeela zer eta non negoziatuko den.

**4. Erreformaz geroztik hitzarmenak estatu-mailan negoziatu beharko dira nahitaez?**

A. Bai, legearen aginduz.

B. Ez, ez da derrigorrezkoa izango.

C. Sektore bakoitzaren arabera.

**5. Zein ondorio dakar aurrera-eragina mugatzeak?**

A. Hitzarmen baten aplikazioari denbora-mugak jartzea.

B. Aparteko orduei mugak jartzea.

C. Lehiakortasunari mugak jartzea.

**6. Zer da enpresa baten barne-malgutasuna?**

A. Lanaldia modu irregularrean banatzea (ordu-poltsa).

B. Lana eta familia uztartzeko neurriak.

C. Lanaldi malgua izatea.

**7. Zergatik CCOOek, UGTk eta estatuko patronalak ekin diote garbikuntza eta merkataritzako estatu-hitzarmenak negoziatzeari?**

A. Legeak hala agintzen duelako.

B. Batzuek negoziazioa monopolizatzeko, eta besteek merkatzeko.

C. Beharrezkoa delako.

**8. Estatuko hitzarmenak eta hemengo hitzarmenak zertan dira desberdinak?**

A. Ez dago ia desberdintasunik.

B. Estatukoak hobeak dira.

C. Hemengoak hobeak dira.

**9. Ba al dago erreformaren ondorio txarrak gutxitzeko modurik?**

A. Bai, geure burua antolatuz, eta hemengo hitzarmenen alde agertuz.

B. Ez, nahitaezko legeria baita.

C. Ez. Nahitaezkoa ez bada ere, praktikan ezinezkoa da.

**ERANTZUNAK HURRENGO ORRIALDEAN**

ELA EUSKAL SINDIKATUA

# ERANTZUN ZUZENEN AURKIBIDEA




**ZER DAGO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ERREFORMAREN ATZEAN?**

**B.** *CEOE, CCOO, UGT eta Espainiako Gobernua.*

Espainiako patronala, CCOO eta UGT akordioa lortzeko zorian geratu ziren. Beraz, Espainiako Gobernuak emandako dekretuaren bidez ezarritako aldaketak haien aldekoak dira: zenbait aldaketa estatuko sindikatuen aldekoak, eta beste batzuk enpresen aldekoak.

**ERREFORMAK NORI EGITEN DIO MESEDE?**

**C.** *Enpresei, CCOOi eta UGTri.*

Enpresei; hitzarmenen indarraldia mugatzen delako, ordu-poltsak sartzeko aukera ematen delako, eta adostasunik lortu ezean nahitaezko arbitrajea ezartzen delako. CCOOi eta UGTri; probintzia-mailako hitzarmenen gainetik estatu-mailakoen lehentasuna azpimarratzen duelako, horiek baitira estatuko sindikatuen menpe daudenak, ELAk negoziatzen dituenak probintzia-mailakoak dira.

**ZER ESAN NAHI DU NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA ZENTRALIZATZEAK?**

**C.** *Estatu-mailako negoziazioan erabaki daitekeela zer eta non negoziatuko den.*

Erreformak CCOOi, UGTri eta estatuko patronalei aukera berezi bat eman dielako. Hori dela-eta, erabaki ahal izango dute zein gai negoziatuko den estatu-mailan soilik, eta zein utziko diguten hemen negoziatzen. Hori eraso bortitza da, hemen lan egiten dugunon negoziazioaren aurka.

**ERREFORMAZ GEROZTIK HITZARMENAK ESTATU-MAILAN NEGOZIATU BEHARKO DIRA NAHITAEZ?**

**B.** *Ez, ez da derrigorrezkoa izango.*

Erreformak aukera ematen die, baina ez ditu behartzen erabakitzera zer negoziatu behar den estatu-mailan eta zer probintzia-mailan. Erabat zilegi izango zen orain arte bezala jarraitzea; hau da, legezkoa da hitzarmenak hemen negoziatzea. Estatu-mailako hitzarmenak negoziatzen hasi badira, ez da beharturik daudelako, hala EGIN NAHI DUTELAKO baizik.

**ZEIN ONDORIO DAKAR AURRERA-ERAGINA MUGATZEAK?**

**A.** *Hitzarmen baten aplikazioari denbora-mugak jartzea.*

Orain arte, hitzarmen baten indarraldia amaitu eta gero, hitzarmenak indarrean jarraitzen zuen beste bat sinatu arte. Erreformaz geroztik gehienezko epeak daude (8 edo 14 hilabete) negoziatzeko; behin epe horiek agortu ondoren, arbitrajea egin behar da nahitaez, hemen besterik itundu ezean.

**ZER DA ENPRESA BATEN BARNE-MALGUTASUNA?**

**A.** *Lanaldia modu irregularrean banatzea (ordu-poltsa).*

Erreformaren arabera, lanaldiaren %5 irregularra izango da, besterik itundu ezean. Bestela esanda, patronalak, gutxi gorabehera, 86 orduko poltsa izango du urtean nahierara erabiltzeko, gehien komeni zaionean enplegatuak lan egitera behartzeko. ELAtik lanaldi irregularrik gabeko itunak lortzen ahalegindu behar gara.

**ZERGATIK CCOOEK, UGTK ETA ESTATUKO PATRONALAK EKIN DIOTE GARBIKUNTZA ETA MERKATARITZAKO ESTATU-HITZARMENAK NEGOZIATZEARI?**

**B.** *Batzuek negoziazioa monopolizatzeko, eta besteek merkatzeko.*

CCOO eta UGT hemengo hitzarmenen alde daudela esan arren, egiatan sektore honetako lehen estatu-hitzarmena negoziatzen hasi dira. Orain arteko hitzarmen guztiak probintzia-mailakoak izan dira. Zergatik hasi dira? Estatuan gauzak haien kontrolpean daudelako. Horrela, ELA begi bistatik galduko dute. Eta patronala zergatik dago ados? Estatu-hitzarmenak askoz merkeagoak ateratzen zaizkielako.

**ESTATUKO HITZARMENAK ETA HEMENGO HITZARMENAK ZERTAN DIRA DESBERDINAK?**

**C.** *Hemengoak hobeak dira.*

Estatuan askoz ordu gehiago lan egiten dira (50 eta 60 ordu bitartean urtean), eta soldatak askoz beherago daude (100 eta 300 euro bitartean hilabetean).

**BA AL DAGO ERREFORMAREN ONDORIO TXARRAK GUTXITZEKO MODURIK?**

**A.** *Bai, geure burua antolatuz, eta hemengo hitzarmenen alde agertuz.*

CCOOi eta UGTri lehen-lehenik adierazi behar dieguna zera da: erreformaren babesean erabakiak kanpoan hartzen hasten badira, ez zaie musu-truk aterako. Estatuan negoziatzea gure kaltetan doa. Hortik aurrera, geure burua ondo antolatu behar dugu bai enpresan, bai sektorean; eta horrela hemen negoziatzen jarraituko dugu, eta gure hitzarmenak Estatuko onenak izango dira, orain arte bezala.